

## G O I Z N A B A R

### ENE BIOTZ NEGARRA

Sorkaldean agertuz gero eguzkia  
txoriak areitz puntan txioka diardu;  
maitetxo galduari oiuka daukazu,  
negarrez oretua bere abestia.

Aize leunak zibuka darabiltz orriak,  
iñoiżkorik pozkorren lastxoa dantzari,  
goi urdiñera begira lorak maitagarri:  
uda-astean eztegu izadi joriak.

Miñez dago txoria, zotin dariola,  
oiñaze-aldi artan pozik ete daurki?  
Illun-ondo alaikor eguzkiak argi,  
ala beti gau illun, beti negar-bala?

Abesari dakisso txoriak saminki,  
orrela barne-miñak gozatu oi ditu.  
Zar-gazteen begiak askotan añutsu.  
Itxi; barru, zotinka, usten dabe aurki.

Zori txarreko litzake  
gure biotza negarge.

### B A K E !

Bake!, zer ete zaitugu?  
zer ete zure ona?  
Bake eder! Ta zure billa  
dabilkigu gizona...

Aingeruak gaur dabese:  
«Gora Jauna ortzean,  
ta bakearen zoria  
gizonari lurrean».

Ta eztau gizonak gura  
bere baitan etenik:  
erre ta suntsi diardu  
odola ixuriz gaindik.

Bake!, zer ete zarean  
galdez gara onela.  
«Erean narea» iñohan  
Augustin'ek beiñola.

Goraizu, gizon ertuna,  
zure aitzin-erpiña,  
ta aintzal gogora Jainkoa,  
orrena baita diña.

Ak eban jarri izatezko  
legearen ardatza:  
giza-biotz barrendian  
eraz ta narez betza.

Zuzena, duiña, ederra  
guztiok maite daigun,  
anaitasun ore-pilla  
Berak barne sar euskun.

Gizon: muiña ez al dozu  
maite-orez egiña?  
Sumin bizi il eta erre  
zabiltz bidutzi ariña...

Zutoin bego gizartean  
zuzenaren argia,  
estu bego alkarrerezko  
maitasun lokarria.

Bakea nai dau gizonak?  
Itzez beiñik-bein maite;

baiña aren azi-garaunik  
lurrean erein ete?

Bake eztirako bideak  
—eguzki erraiñuak—  
ez dira danak errezto  
guk eskuratzekuak.

Baiña muiñak giro beitez  
ortarako asmotan  
ta zoriaren argiak  
dizdiz dagike bertan.

### ZORATUA

Ixil-ixillik dago ondartzza gorria;  
eztabil goizean lez itxas-aize mia.

Ura esi-bearrez arkaitzak zerrendan,  
eguerdia da-ta, eguzki galdataan.

Oiu! Norena ete? Neskatil batena.  
Ixillaren miesa zarraztu dauena.

Neskatil batek jo dau aitzera laisterka,  
aizetara iñarrosiz uledi-mordoxka.

Soin-lerden, zail, aitz-antzo, aurrez ur-zingira;  
adi-adi dago urdin-mugara begira.

Eskuz dau arpegia, zotinka, estali;  
ene!, aren begiak negarrez iturri!

Zer dau? Zergaitik malkoz neskatzak begia?  
Zek oiñazetzen ete dautso biozpea?

Urduri dabilkio asmo, izpi antzera;  
maiteak iges ete cntziz urriñera?

Begiak zirkinka ta biotza pilpil,  
jauzi azartu baten uretan da murgil.

Au ikus-ta, ur-neskatxak, sorgiñak bai-litzan,  
uger-ukaldi gezal-gaiñez, bar-irritan.

### ERIOTZORRI

Eder baizen lirain da-ta,  
itun bizi da **Eriotzorrí**;  
urriñeko zelai-lagun,  
ur-ezpondetan, gorri.

Zergaitik ezta jaioten  
bere ingurun lorarik?  
Zergaitik bizi ete da  
urrin, bakar-bakarrik?

Nok barnean goibela sar?  
Zek laiñoz begik itzali?...  
—Lorak, zur zagokidaze,  
ta ona bere edesti.

Zelatan bizi ei zan len,  
panpin, arro ta guri,  
alboan itz-oska joian  
lastxoaren pozgarri.

Bedar-zelaí ekarkorren  
ugin jantzi gaiñetan  
lora eder usaindunik  
naiko begiz jo eban.